

ZIRKULATZEKO BALDINTZAK

1.- Seinaleztapena

Multzoak bi V-2 argi-seinale izan beharko ditu, multzoaren atzealdeko goiko muturretan kokatuko direnak. Horrez gain, honako seinale hauek ere izan beharko ditu: ibilgailu luzeko V-6 seinalea, ibilgailuaren ingerada seinaleztatzeko V-23 bereizgarria eta IEOak salgaiak garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuetarako nahitaezkoztat jo dituen gainerako seinaleztapen-gailuak.

Zirkulazio-norabide bietarako galtzada bakarra duten bide arruntetan zehar, argi laburrak edo egunez gidatzeko argiak piztuta eramango dituzte.

2.- Meteorologia kaltegarria eta ikuspen urria

Zirkulazio-norabide bietarako galtzada bakarra duten errepide arruntetatik zirkulatzeari utzi eta plataformatik irten beharko dira egoera hauetan: ibilbidean zirkulatzeari arriskutsu bihurtzen duten fenomeno meteorologiko kaltegarriak daudenean; edo, edonola ere, gutxienez 150 metroko ikuspena ez dagoenean, ez aurrera ez atzera; edo EMS multzoak karga badarama, Euskalmetek haizea dela eta maila gorriko arrisku-abisu meteorologikoa aktibatu duenean; eta kargarik ez badarama, Euskalmetek haizea dela eta maila laranjako arrisku-abisu meteorologikoa aktibatu duenean.

Zirkulatzeko baldintzak okerrak direnean (elurra, izotza, laino trinko edo haize bortitza) ezin izango dute zirkulatu, eta aurreikuspen meteorologikoak hobera egin arte (Euskalmeten eta babes zibileko abisuen arabera) egoki eta segurtasunez aparkatu beharko dute.

3.- Abiadura

ibilgailu artikulatuentzako gehieneko abiadura RGCak ezarritakoa izango da, bide motaren arabera.

Hala ere, RGCKo 46. artikuluan aurreikusitako egoeretako bat gertatzen denean, aurreko paragrafoan multzo mota horietarako ezarritako gehieneko abiadura 10 km/h-an txikituko da bide motaren arabera.

4.- Zirkulatzeko murrizketak

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailuetarako orokorrean urtero ezartzen dituen zirkulazio-baimen berezien murriztapenak errespetatuko dira.

5.- Aurreratzea

Zirkulazio-norabide bietarako galtzada bakarreko bideetatik zirkulatzen dutenean, 45 km/h-tik gorako abiaduran doazenei ezingo diete aurreratu.

6.- Karga

Garraiatu beharreko karga kargatu beharko da zirkulazioan zehar mugituko ez den forma batean, multzoen egonkortasuna arriskuan ez jartzeko. Baimenak ez du babestuko kargatze egoki hori bermatzen ez duen salgaien garraioa.

EMS multzoek salgai arriskutsuak garraiatzeko PRE/2788/2015 Aginduak ezarritako murriztapenak bakarrik eragingo die erregelamenduko arrisku-seinaleztapenerako panel laranja edo xafla-etiketak eramanez garraiatu behar diren salgaiei, Salgai Arriskutsuen Nazioarteko Errepide Garraioari buruzko Europako Akordioari (ADR) jarraikiz. Nolanahi ere, horiek garraiatzeko Akordio honek ezarri dituen baldintzak eta murriztapenak errespetatu behar dira.